

MendiAmore

Mendiamore herrien despopulazioa murrizteko edo eta ekiditzeko bide bat izan daiteke. Produktu, ohitura, jarduera, zerbitzu lokalak eta gehiago heda daitezten. Gehien bat ekintza hauek herriko bizitza ezezaguna duten pertsonentzat bideratuta daude; hiriko pertsonak, alegia. Mendialdeko enpresak bultzada ekonomikoak behar dute eta gure enpresa horretarako egokia da bertako ekonomia hobetzeko. Herrietako bizimoduaren berri ematea eta haien eguneroko jarduerak erakustea. Herri bat aurrera eramatea eta urte askoz mantentzea gauza zaila da, haien lana eta esfortzua behar delako, pertsona asko ez dauka horren berri, guk pertsona horiei bizimodu hori erakutsi nahi diegu.

Denboraldi jakin batzuetan praktikatzen diren jarduerak ere aurrera eraman daitezke; sasoiko ekintzak alegia. Esate baterako, udan karramarroak arrantzatzea, gero haiek prestatzeko era desberdinak azalduz, uzta biltzea uzta-makinarekin; udazkenean, mendira joan eta perretxikoak biltzeko jarraibideak ematea, soroen lurra prestatzea eta landatzea, usoen ehiza egun osoko txabolan; neguan, gaztainen bilketa, elurretan ibilaldiak zaldiz, eta azkenik udaberrian, hortuan landatzea ibaira joan... Ekintza guzti hauek egiteko, herri batetik bestera joateko ibilaldiak egongo dira antolatuta, non bitartean, jolas dinamikotaz gozatuko dute (Euskarabentura modukoa antolatzea). Beraz, ekintza guzti hauek bideratzeko behar diren pertsonak herrikoak izango dira herriko ekonomia bultzatuz. Hala nola; pertsonak eta materialak eramateko Mendialdeko autobus konpainia subkontratatu.

Gure sozietatea publiko zabal bati bideratuta egongo da. Bezeroen barruan, adin-talde ezberdinetik eta leku desberdinetatik etor daitezke. Adin-talde bakoitzarentzat ekintza egokituak izango dira:

- Haurrentzat, abeltzaintzan aritzen direnen animaliak ikustea, eta animalie jaten ematen, zaldiz ibiltzea, ingurumenarekin bat egiteko ekintzak egitea, adibidez perretxikoak jasotzea edo mendira txangoak egitea, eskulan tailerrak esate baterako zeramika, edo ogi saskiak egitea eskuz, ingurumena zaintzearen garrantzia erakustea...
- Nerabeentzako, ekintza kulturalak; ehiza, ibaira joan eta arrainak ehiztatu, ibaian ur ekintzak egin, landan egiten diren jarduerak, hala nola, usta hartzea, lurra mugitu, haziak jarri lurrin.



MendiAmore

Mendia bizi

- 3. adinekoentzat, ohiturak, gastronomia, kakorraz-lana, zura lantzeko tailerrak... erakutsi dezakegu, ere bai. Hau guztia antolatzeko progama bat egongo da. Bertan, gure enpresa kontratatuko dute udaleku bezala, eskola irteera bezala...

Gainera, ekintza hauek ezagutzeko, herriz herri joateko ibilaldia egiteko aukera egongo da; mendialdean bide berdetik, beste eskualde batzuetatik partzela-bidetatik. Hortaz, herri horietara ailegatzean, bertako eguneroko bizimodua (ohitura, tradizio, gastronomia...) ezagutuko dute. Esan beharra dago, ibiladiak ezberdinak izango direla adina eta gaitasunak kontuan izanda.

Beraz modu honetan, herriko bizitzan murgildu nahi duenak, aukera ezin hobe batez gozatu dezake. Oso interesgarria da zure bizitzatik urrun dauden beste ekintzen ezaguera izatea. Esperientzia hauek bezoroaren jakinmina piztea dute helburu.